

Donostiako Maratoi Erdiak trafiko aldaketak eta zirkulazio etenak eragingo ditu igande honetan

Udalak garraio publikoa erabiltzea gomendatzen du

Igande honetan, apirilaren 7an, egingo den Maratoi Erdirako baliabide guztiak prest ditu Udalak. Udaltzaingoa, Mugikortasuna, Herri Babesa, Mantentzea eta Dbus elkarlanean ari dira. Hiriak trafiko aldaketa garrantzitsuak izango ditu, aurreikusitako etenak direla eta Udalak garraio publikoa erabiltzea gomendatzen du.

19. Maratoi Erdia 10:00etan hasiko da 12:30 alderako amaitzea aurreikusten da. Proba Boulevardean hasi eta amaituko da, eta erdialdetik, Antiguatik eta Grosetik igaroko da. Horregatik, hainbat zirkulazio neurri hartuko dira.

Zehazki, Boulevard zumardia 6:00etatik 13:30ak inguru arte itxita egongo da. Bestalde, 9:45etik 12:30era bitartean, itxita egongo dira Hernani kalea, Kontxa pasealekua, Zurriola hiribidea eta Nafarroa hiribidea.

Lasterketa abiatu ondoren, Hernani kaletik igaro ahalko dira ibilgailuak.

Aipatutako kale horietako herritarrek ibilgailua erabili behar izanez gero, Mugikortasun agenteen, udaltzainen eta lasterketaren antolatzaileen aginduak bete beharko dituzte.

Herritarrentzako gomendioak

Udalak eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei, beren laguntzarengatik. Era berean, gomendatzen dute, alde batetik, hirian garraio publikoa erabiltzea, eta, bestetik, kontuan hartzea ibilgailuak mantsoago ibiliko direla hiri barruan; hori dela eta, **komeni da garaiz ateratzea**. Horrez gain, gomendagarria da hirian garraio publikoa erabiltzea.

Zirkulazioa aldatzea eta errepideak ixtea

Hirira sartzeko bidea itxi ondoren, ibilgailuak leku hauetatik sartu eta aterako dira:

- Ondarretatik edo Igeldotik atera nahi dutenek Zumalakarregi eta Tolosa hiribideetatik zirkulatu beharko dute.

- Ibaetatik atera nahi dutenek Ibaeta plazara jo beharko dute, eta, han, nahi duten bidearekin konektatzeko aukera izango dute: Tolosa hiribidetik, Añorga aldera; bide berritik, Amara aldera; edo Zarautz kaletik, Antigua aldera.
- Berio edo Arriola pasealekura joan nahi dutenek hau izango dute horretarako bidea: Amerika plaza, Tolosa hiribidea, Ibaeta plaza, Bernardo Estornes, Lautximieta plaza, Berio pasealekua.
- Hirira Tolosa hiribidetik sartu nahi dutenek Zarautz kaletik edo bide berritik igaro beharko dute.
- Antigua: Zumalakarregi eta Tolosa hiribideetako eskuineko erreia erabili ahal izango da, edo, bestela, Mikelete pasealekuak eta Matia kaleak bat egiten duten tokitik sartu (Mugikortasun agenteek erregulatuko dute).
- Kontxa pasealekurako sarbidea itxita egongo da, bi noranzkoetan; beraz, erdialderako bide GUZTIAK Mikelete eta Pio Baroja pasealekuetara bideratuko dira, Zumalakarregi - Satrustegiko biribilgunetik.
- Autobus erregularrak, taxiak eta larrialdietako ibilgailuak Sanserreka – Mirakontxatik behera sartu ahal izango dira erdialdera; hortik igaro ahal izango dira, orobat, Sanserrekako, Mirakontxako, La Fe pasealekuko eta Baenako Dukearen pasealekuko bizilagunak, bai eta Easo, San Bartolome eta Zubieta kaleetako eta Kontxa pasealekuko perimetroaren barruan bizi direnak ere. Gainerako ibilgailuek Lazkaokoko biribilgunerantz edo Isturin kalerantz jo beharko dute.
- Igeldo – Ondarreta aldera joan nahi duten autobusak eta bizilagunak, betiere akreditatuta badaude, Matiaren luzapenetik sartu ahalko dira, eta Antiguako tunela baino lehen hartu harako bidea.
- Saguesetik, Pasealeku Berritik, Portutik edo zirkuituaren barruko beste puntu batzuetatik irten nahi dutenek izango dute horretarako modua, betiere eremu horretatik kanpoko beste tokietara joan nahi badute.
- Portu ingurura edo Kanpandegi kalearen aldameneko kaleetara sartzeko, kale hauetatik igaro beharko da: Salamanca pasealekua – Soraluze – Aldamar – San Bizente – San Juan – Abuztuak 31 – Kale Nagusia – Ijentea.

Autobusak

Igandean, apirilaren 7an, 9:45etik 12:30ak inguru arte, lasterketaren eraginez, Erdialdeko, Groseko eta Antiguako kale batzuk itxi egingo dira. Ondorioz, Boulevardeko geralekuak Okendo, Mirakruz, Santa Katalina zubira eta Gipuzkoako plazara aldatuko dira.

10:00etatik 12:00etara bitartean, lasterketaren ondorioz aldatu diren Dbus hiri autobusetako bidaiak doakoak izango dira. Bidaion kostu osoa maratokiaren antolatzaileek ordainduko dute.

Informazio gehiago: www.dbus.eus y www.lurraldebus.eus

Aparkalekuak

- Kursaal: ohiko sarrera eta irteera
- Okendo: Erregina Erregeordearen kaletik sartu beharko da, eta irteteko bide bakarra Okendo-Bengoetxea kalekoa izango da. * Boulevard zumardia: 6:30etik proba amaitu arte, Erregina Erregeordearen kaletik egin beharko dira sartu-irteerak (bizilagunentzat jarritako sarreratik izango da irteera).
- Alderdieder: 06:30etik aurrera, Peñafiorida eta Hernani kaletik sartu ahal izango da, eta irten, berriz, ohiko bideetatik.
- Cervantes: Ohiko sarbidea. Lasterketa hasitakoan, Miramar kaletik bakarrik irten ahal izango da.
- San Martin: sarrera-irteerak, ohiko bideetatik.

Donostia, 2019ko apirilaren 4a